

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

##### Kultura

#### 2025eko inauterietan parte hartuko duten konpartsei dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarrien aldaketa

2024ko abenduaren 13an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez, aldatu egin dira 2024ko inauterietan parte hartzen duten konpartsei dirulaguntzak emateko deialdiari dagozkion oinarri arautzaileetako puntu batzuk; oinarri horiek Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko urriaren 31ko erabakiaren bidez onartu ziren. Hona hemen onetsitako idazketa berria:

##### 4.4 Desfileak:

Desfileetan guztira 7500 pertsonak parte hartu ahaliko dute, konpartsa guztien artean banatuta. Konpartsa bakar batek ere ezin izango du 400 kide baino gehiago izan.

##### 7.6 Entitate eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak:

Oinarri hauen III. eranskina: inauterietako konpartsan parte hartuko duten kide guztien zerrenda, izen-abizenak, NANA eta sexua-generoa (emakumeak/gizonak/ez bitarrak guztira) adierazten direlarik, aseguruari dagozkienetarako. Nortasun-agiririk ez duten adingabeen kasuan, adingabearen arduradunaren nortasun-agiria zehaztu beharko da. 2024ko abenduaren 20an bukatuko da dokumentazioa aurkezteko epea. 2024ko abenduaren 16rako zerrenda hori aurkeztua duten elkarteek parte-hartzaileen zerrenda osagarria aurkeztu ahaliko dute. Epe hori betetzen ez bada, eskaeran atzera egin dela ulertuko da.

9.2 Eskabideak balioesteko batzordeak egingo du eskabidea egiten duten elkartei dirulaguntza esleitzeko proposamena, irizpide hauek baliaturik:

Parte hartzen duen konpartsa bakoitzari 1.500,00 euroko dirulaguntza finkoa emango zaio karroza eta soinu-ekipoarengatik. Kopuru horri zenbateko aldakor bat gehituko zaio, zeina dirulaguntzaren gainerako zenbatekoa zati konpartsakideen kopuru totala eginda kalkulatuko baita.

Konpartsa bakoitzeko diruz lagundutako gehieneko pertsona kopurua honela kalkulatuko da: 7.100 zati parte hartzen duten konpartsen guztizko kopurua. Konpartsakide bakoitzeko ordainduko den kopurua aurrekontu-partidaren guztizko zuzkiduraren eta jasotako eskabide kopurua araberakoa izango da.

Vitoria-Gasteizen 2024 abenduaren 13an

*Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria*  
**SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA**